

I ERANSKINA

ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA

LAPLko 24. artikulua garatzen duen, urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuko 10.2. artikuluan adierazten den bezala, lan arriskuen prebentzioaren arloko enpresa jardueren koordinazioaren barnean, enpresaburu nagusiaren zaintzako betebeharren barruan, enpresa kontratistei hurrengo agiriak aurkezteko eta kreditatzeko eskatzen zaie.

Horregatik ondorengo agiriak aurkeztu eta kreditatu beharko dira:

- ✓ Kontratatutako zerbitzuetan garatu beharreko jardueretako lanpostu ezberdinen **arriskuen ebaluazioaren** eta **prebentzio neurrien** agirien kopia.
- ✓ Lantokian zerbitzua eskainiko duten langileei emandako **informazioaren** erregistroaren kopia eta langile horien **zerrenda eguneratuta**.
- ✓ Langile horiek prebentzioaren arloan hartu duten **formazioaren** erregistroaren kopia.
- ✓ Langile horien **lan gaitasunaren** mediku ziurtagirien kopia.
- ✓ Zerbitzua emango duten langileei **norberaren babeserako ekipoen ematearen** erregistroen kopia.
- ✓ Enpresa kontratistaren **arduradunaren izendapena** eta **prebentzio baliabidearen** izendapena balego.
- ✓ **Erantzukizun zibileko** aseguruaren polizaren kopia eguneratua.

II. ERANSKINA

DATU PERTSONALAK ETA INFORMAZINO KONFIDENTZIALA BABESTEARI BURUZKO KLAUSULA

..... ENPRESEAK AITORTZEN DAU:

Kontratu honen xede diran zerbitzuak emoteko kontratuzko hartu-emonari jarraiki, BERMEOKO GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUArentzat Obrak/ zerbitzua/ lanak egingo dauzala.

Horreek obrak/zerbitzuak/lana egin/emoteko, BERMEOKO GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUAK,enpreseari datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategietara sartzeko baimena emon behar badeutsoz, enpreseak datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategiak BERMEOKO GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUAren kontura erabiliko dauzala.

Sarrera hori emoteagaitik, halan behar izatekotan, ezin leitekela ezelan be ulertu lagapen, emote edota Datu Pertsonalen zein Fitxategien transferentziarik dagoanik.

..... enpreseak, udalaren datuez kanpo, kontratuaren xede diran egitekoetarako, jasoten dauzan bestelako datu pertsonalak zein konfidentzialak, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuaren izenean egingo dauzala, kontratu honen helburua dan proiekturako soilik erabili ahal izango dauzala, udalaren titularidadekoak izango dirala, eta datuen jasoketan Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan eta horren garapenerako araudian ezarritako eginbideak beteko dirala.

Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan ezarritakoagaz bat eginez, 12. artikuluan, jagoken pertsonen eskubideak bermaturik gelditzeko eta datu zein fitxategi horreetara sartzean jarraitu beharreko legediari eutsiz agintzen dan "hirugarrenek egindako tratamenduak idatziz egindako kontratuan arautuko dira" adierazpenean oinarrituta eta datu pertsonalen jasoketan araudiak exijitzen dauzan zehaztasun, informazio, ardura eta arretan oinarrituta eta, era berean konfidentziasunak eskatzen dauzan bermeak kontutan eukita, enpreseak onartzen dauzala hurrengo

AITORPENAK

LEHENENGOA .- *Muga*

.....enpreseak, BERMEOKO GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUAren ardurapekoak diran datu pertsonaletara eta fitxategietara helduko da lotzen dauen kontratuzko hartu-emonaren izakera juridikoa eta funtzino ekonomikoak halan eskatzen badau, eta, betibe, kontratautako obra/zerbitzua/lanak hobetzeko beharrezkoa izan ezkeru.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEO GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUAK itxitako datu pertsonalak zein konfidentzialak, bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Horrezaz ganera, enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbetako bada be, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEO GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUAgaz daukan kontratu hau beteteko udalaren izenean eta kontratu honen xede dan helbururako jasotako Datu Pertsonalak eta konfidentzialak bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Jasotako datuok udalaren izenean egiten dauzala informau beharko dau, eta datu-bilketea honako araudiek agindutakoaren arabera egingo da: Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoa, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua,

zezeilaren 25eko 2/2004 Legea eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretua.

Horrezaz ganera,enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbazinorako bada be, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuaren idatzizko baimen barik.

BIGARRENA .- *Araudia*

.....enpreseak Datu Pertsonaletara eta Fitxategietara egindako sarbidea, Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoaren xedapen zehatzak eta garapen araudi ezargarriak arautuko dabe.

.....enpreseak Datu Pertsonalen arautegiak, tratamenduaren arduradunari ezarten deusazan eginbeharrak eta betekizunak eta datu pertsonalen jasoketan kontuan euki beharrekoak bere gain hartzen dauz. Halanda ze, Datu Pertsonalen Babeserako Legeak garatzen dauen berme aginduagaz bat eginez, datuen izakerearen arabera eta ezarten diran tratamenduaren arabera, behar diran neurri teknikoak, antolaketakoak eta behar diran neurriak diseinetako, ezarteko eta gordeteko konpromisoa eta betebeharra daukaz.

HIRUGARRENA .- *Ardurea*

Legeak BERMEOKO GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUA “arduradun” izentetan dau jagokon administrazioaren zein auzitegiaren aurrean.enpreseak, “eragileak”, BERMEOKO UDALAK emondako aginduak beteta, zuzenean edo zeharka Datu Pertsonalen mendekotasunak sortzen dauzan erantzukizun danak bere gain hartzen dauz.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak edota eskumena daukan beste erakunderen batek, erantzukizunaren egozketa edo gatx-kalteakaitiko ordainen erreklamazioa egingo baleutso Bermeoko Udalari, BERMEOKO GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUAKenpreseak aurka jo leike Jurisdikzio Zibil Arruntaren aurrean, jagokozan itzulera eta konpentsazio ekintzak bideratzeko, baita beste edozein egiazko, ahalezko, moralezko zein etorkizuneko gatx-kalteak konpentsetako be eta, bardin, informazio konfidentzialak era desegokian erabiltzen badira.

LAUGARRENA .- *Konfidentzialtasuna*

.....enpreseak, sarbidea daukan datu pertsonalen zein eskuratutako informazio konfidentzialen isilpeko izakerea gordeteko eta inori ez zabaltzeko konpromisoa hartzen dau, baita kontratautako obra/zerbitzu/lanetatik kanpo ez erabilteko konpromisoa be.enpreseak bere ardurapeko langileek ez dabezala horreek datu pertsonalak zabalduko bermatzen dau, baita modu desegokian ez dabezala erabiliko be.

Konfidentzialtasun eginbehar horrek, BERMEOKO GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUAREN ardurapean dagozan datu pertsonaletara edo fitxategietaraenpreseak egindako sarbidea dala-eta, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuagaz egindako kontratuaren helburua lortzeko honen izenean jasotako bestelako datu pertsonalak dirala-eta, zein eskuratutako informazio edota datu konfidentzialak dirala-eta, sortutako zerbitzu hartu-emonan amaitu ostean be iraungo dau egitez edo eskubidez, itxura, era eta denpora albo batera itxita.

BOSGARRENA.- *Ebazpena*

Honeek akordioak muga bako iraupena dauka, baina obra/zerbitzu kontratuen hartu-emonaren iraupenagaz lotuta dago.enpreseak, obra/zerbitzua/lanak amaitu eta gero, zerbitzua beteteko erabili dauen euskarria deuseztatu egingo dau, baita kopiak eta bestelako euskarriak be (informatikoak izan zein ez), beti be, Patronatuak itzultzeko eskatzen ez badeutso.

SEIGARRENA.- *Ezarri leitekezan jurisdikzioa eta legeria*

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa eta lege hori garatzen dauen araudia be ezarri ahal izango dira. Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren ebazpenak be hartuko dira oinarritzat.

Klausula honen interpretazioak edo ezarpenak sortu leikezan zalantzak, desadostasunak zein bestelako arazoak eta eztabaidak, Gernika-Lumoko Auzitegiaren mende ipiniko dira. Bi aldeek uko egiten deutsee Antolamendu Juridikoaren arabera eskumenak daukiezan beste epaitegiei.

Bermeon, 2014koarenan

III. ERANSKINA

Proposamen ekonomikoaren eredia

..... Jaun/Andreak,
Helbidearekin eta zenbakiduneko NANarekin, nire izenean edo
..... Helbidea eta IFZ daukan
..... izeneko enpresaren ordez,

AITORTZEN DUT:

I.- xedea
daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.

II.- Kontratua arautzen dituen Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak
ezagutzen dituela, horiek onartzen dituelarik.

III.- Ordezkatzen dudana enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako baldintza eta
irizpide guztiak betetzen dituela.

IV.- Aipatutako kontratuaren betearazpena(zenbakitan/hitzetan)
Eurotan, BEZ kanpo, proposatzen dudala. BEZari dagokion zenbatekoa
.....€koa (zenbakitan /hitzetan) izango dala.

Bermeon, 2014korenan.

Sinatuta:

NAN:

IV. ERANSKINA

Zinpeko Aitorpenaren Eredua

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko NANarekin,
..... helbidea etaIFZ daukan
.....izeneko enpresaren ordeztuz,

KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN DU

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikulua ezartzen dituen debekuetatik bat bera ere ez duela.

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2014korenan.

Sinatuta:

NAN:

V ERANSKINA

Lizitatzailleek betetzeko inprimakia

ENPRESAREN DATUAK

1. Enpresa indibiduala

Izena:

NAN:

Helbidea:

Fax:

Tfnoa:

PK:

Erregistratutako merkataritza- izena:

.....ko Merkataritza Erregistroan
datan inskribatuta.

2. Gizarte-enpresa:

Izena:

IFZ:

Eratze-data:

.....ko Merkataritza Erregistroan
datan inskribatuta.

Helbidea:

Fax:

Tfnoa:

Ondorengo giza-eskiturak:

IZENA

1. Aldatzea

2. Handitzea

DATA

...../...../.....

...../...../.....

3. Beste batzuk

...../...../.....

3. Ahalduna:

Izena:

Ahalordetze-eskritura :

- Data :
-ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.

Bermeon, 2014korenan.

Sinatuta:

NAN:

VI ERANSKINA

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroko edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroko datuen baliagarritasunaren Zinpeko Aitorpenaren Eredua

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko
NANarekin , helbidea etaIFZ daukan
..... izeneko enpresaren ordezt,

KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN DU

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak edota Bizkaiko Foru Aldundiko Lizitatzailen Erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen diren datuen baliagarritasuna eta indarraldia, batez ere, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluari dagozkionak.

Sinatuta:

NAN:

VII. ERANSKINA
KAUDIMEN EKONOMIKOA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko
NANarekin, helbidea etaIFZ daukan
.....izeneko enpresaren ordezt, xede daukan
kontraturako eskatzen den kaudimen ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

Enpresaren negozioen kopurua azken hiru urtetan ondokoa izan dala:

- 2011. Urtea:

- 2012. Urtea:

- 2013. Urtea:

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen ekonomikoa frogatuta gera
dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2014korenan.

Sinatuta:

NAN:

VIII. ERANSKINA KAUDIMEN TEKNIKOAK

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko
NANarekin, helbidea etaIFZ daukan
.....izeneko enpresaren ordezkari,
xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

1. Azken hiru urtetan enpresa honek egindako lanak ondokoak izan direla:

2011. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

2012. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

2013. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

2. Kontratua betetzeko gure esku dauden unitate teknikoak ondokoak direla:

Gizarte Hezkuntzan Diplomatua edo gaikuntza duten hiru profesionalen osatutako lantaldea aurkeztu beharko da. Hauetako batek funtzio teknikoaz gain, ekipoaren koordinazio lana burutuko du.

3. Ingurugiroko kudeaketa neurriak ondokoak direla:

4. Enpresaren baliabide pertsonalak ondokoak direla:

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen teknikoak frogatuta gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2014korenan.

Sinatuta:

NAN: